

BERGARAKO JESUITEN ELIZA EDO ERREGE SEMINARIOKO ELIZAN INDUSKETA ARKEOLOGIKOA EGITEA KONTRATATZEKO BALDINTZA ADMINISTRATIVO PARTIKULARREN PLEGUA

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bitartez egingo den kontratuaren xedea Bergarako Jesuiten Elizan edo Errege Seminarioko Elizan indusketa arkeologikoa egitea izango da, baldintza-agiri honekin eta eranskin den baldintza teknikoaren pleguarekin bat etorritz.

2. OBRAK BURUTZEKO EPEA

Kontratu honen helburu diren obrak egiteko epeak baldintza teknikoaren pleguan aurreikusitakoak dira.

Kontratatutako zerbitzua berandu betetzeak ez du errekeritzen Administrazioak alde aurretik interpelatzea edo ohartaraztea.

3. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 115.000 € izango da, BEZ eta gainontzeko kontzeptuak barne. Lehiatzaileek diru-kopuru hori merkatuz hobetu dezakete.

Hau da, prezio horren barne daude, batzuk aipatzearen, eta adjudikazio-hartzailearen kontura izango dira lanak egiteko beharrezkoak diren giza baliabide eta baliabide materialak, egituren muntaiak, pasabideak, bisitaldi gidatuak eta gainontzeko zabalpen-ekintzak, uraren eta argindarraren hargunak eta horien kontsumoa behar balira, era guztietako lan-tresnak, garraioak, zaborra kentzea,... hala nola, gizarte aseguruak, etekin industrialak eta zergak.

Prezio horren % 60 baldintza teknikoaren pleguko 2.1.1. puntuan (indusketa arkeologikoaren 1go fasea) eta 2.2.1. puntuan (zabalkunde-programa: bisitaldi gidatuak) jasotako lan guztiei dagokie; % 30 baldintza teknikoaren pleguko 2.1.2. puntuan (indusketa arkeologikoaren 2. fasea) jasotako lan guztiei dagokie eta gainontzeko % 10a baldintza teknikoaren pleguaren 2.2.2. puntuan jasotako lan guztiei (zabalkunde-programa: bideo-erreportajea egitea eta ekoiztea).

Gainera, ohartarazten da aintzat hartuta mausoleoaren tapa edo estalkia altxatzeko bideragarritasunari buruzko txostena eta Foru Aldundiak baldintza teknikoaren pleguko 2.1.2. puntuan (indusketa arkeologikoaren 2. fasea) jasotako lanak baimentzeko edo hartuko duen erabakia, Udalak erabaki ahal izango duela baldintza teknikoaren pleguaren 2.1.2.puntuan (indusketa arkeologikoa 2.fasea) aurreikusitako lanak ez egitea. Kasu horretan Udalak ez du lan horiei dagokien prezioaren zatia ordainduko, ezta inolako kalte-ordainik ere.

4. FINANTZATZEA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru jarri da aurtengo ekitaldiko aurrekontuan. Era berean, hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan behar adina kreditu jarriko ditu aurrekontu gaietan eskumena duen organoak.

5. ORDAINTZEKO MODUA

Dagokion kobrantza-agiria aurkeztu eta onartu ondoren, honela ordainduko da kontratuaren prezioa:

Kontratuaren prezioaren % 60a, behin baldintza teknikoen pleguko 2.1.1. puntuan (indusketa arkeologikoaren 1go fasea) eta 2.2.1. puntuan (zabalkunde-programa: bisitaldi gidatuak) adierazitako lan guztiak egin eta jasotakoan eta Udalaren oniritzia jaso ondoren. Kontratuaren prezioaren % 10a, behin baldintza teknikoen pleguko 2.2.2. puntuan (zabalkunde-programa: bideo-erreportajea egitea eta ekoiztea) adierazitako lan guztiak egin eta jasotakoan eta Udalaren oniritzia jaso ondoren. Kontratuaren prezioaren % 30a, behin baldintza teknikoen pleguko 2.1.2. puntuan (indusketa arkeologikoaren 2. fasea) adierazitako lan guztiak egin eta jasotakoan eta Udalaren oniritzia jaso ondoren; betiere mausoleoaren tapa edo estalkia altxatzeko bideragarritasunari buruzko txostena eta Foru Aldundiak jarduketa horretaz har dezakeen erabakia aintzat hartuta, Udalak erabakitzen badu baldintza teknikoen pleguaren aipaturako 2.1.2.puntuan (indusketa arkeologikoa 2.fasea) aurreikusitako lanak egitea.

6. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Kontratu honetan ez dira prezioak berraztertuko.

7. BERMEAK

Lizitazioan parte hartzeko, aurretik 2.974,14 euroko behin-behineko fidantza ezarri behar da.

Kontratuaren behin-behineko adjudikazio-hartzaileak adjudikazio-prezioaren 5% €-ko behin betiko bermea eman beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela bermatzeko.

Berme hori jartzeko epea egutegiko hamabost egunekoa izango da, behin-behineko adjudikazioa kontratatzailearen profileen argitaratu eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, berriz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 84. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua burutzerakoan, plegu honetan dauden baldintzak bete beharko dira, bai eta espedienteari erantsitako xehetasun teknikoak ere. Kontratua Udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Baldintza administratibo partikularren pleguaren eta baldintza teknikoen pleguaren artean kontraesanak izanez gero, honako plegu honetan zehaztutakoa nagusituko da.

Kontratu-hartzaileari edo haren aginduekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

9. KONTRATU-HARTZAILEAREN LAN-EGINKIZUNAK

Kontratu-hartzaileak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higiearen arloan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

10. KONTRATU-HARTZAILEAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratu-hartzailearen ardura da zerbitzua burutzearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Horretarako, 300.000 €-ko muga duen erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko du.

11. KONTRATUA ALDATZEA

Herri-onurako arrazoiak direla eta, Administrazioak kontratua aldatzea izango du, ustekabeko arrazoiak sortzen direnean. Kontratu-hartzaileak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 284.c) artikuluan ezarritakoaren kalterik gabe.

12. ZERBITZUAREN HARTZEA ETA BERMEAREN EPEA

Kontratuaren helburua den prestazioa burutu eta, gehienez ere, 15 egun pasa baino lehen, lanaren harrera-egintza formal eta positiboa egingo da.

Gainera, lau hilabeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan egiten diren lan edo zerbitzuetan akatsak agertzen badira, kontratu-hartzailea izango da erantzulea.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratu -hartzailearen erantzukizuna amaitutzat joko da.

13. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU

A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA

Kontratistak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko penalizazioa ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Atzerapenagatiko penalizazioen guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, Administrazioak aukera izango du kontratuari amaiera emateko ala zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA

Kontratu-hartzaileak, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan ezarritako prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratuari amaiera ematea, edo kontratuaren prezio osoaren 100eko 10eko penalizazioa ezartzea.

C) PRESTAZIOA AKATSEKIN BETETZEA

A) eta B) ataletan jasotakoez aparteko baldintzaren bat bete ezean, 6.000 euro arteko penalizazioa ezarri ahal izango da.

14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOTIAK

Kontratu amaizteko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 206. eta 284. artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Herri-Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

16. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu honen adjudikazioa jardunbide ireki bidez egingo da.

Kontratuaren adjudikazioa egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat eskaintzak balioesteko:

- Prezioaren murrizpena. -Murrizten den 1.000 euroko puntu 1 emango da, eta, gehienez ere, 10 puntu lortu ahal izango dira.

- Indusketaren zuzendariaren eta lan-taldearen prestakuntza eta esperientzia, gehienez ere, 8 punturekin balioetsiko da.

Horretarako, indusketa arkeologikoaren zuzendariaren *curriculum vitae*a eta lan-taldea osatuko duten kideen % 50en *curriculum*aren berri laburra aurkeztu beharko dira. Udalak komenigarri irizten dien agiriak aurkezteko eskatu ahal izango du curriculumak egiaztatzeko.

- Proiektua, gehienez ere, 8 punturekin balioetsi ahal izango da.

17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 49. artikuluan zehaztutako debekuren bat ez badute. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 18.e) baldintzan ezarritakoak izango dira.

Gainera, honako baldintza hauek bete beharko dira, behar den bezala egiaztatuta:

- Enpresa lizitatuak bi urteko esperientzia izan beharko du gutxienez Erdi Aroari eta Aro Modernoari buruzko ikerketa zientifikoan, bai ikerketa arkeologikoaren, bai ikerketa historiko-dokumentalaren alorretan.
- Indusketaren zuzendariak Historia edo Arkeologiako lizentziatu titulua izan beharko du, eta, gutxienez, bi urteko esperientzia Erdi Aroari eta Aro Modernoari buruzko ikerketa historiko eta arkeologikoaren alorretan. Horrez gain, lan-taldeko kideetako batek Antropologia lizentziatu titulua eduki beharko du edo Medikuntza lizentziatu titulua eduki beharko du eta lege eta auzitegi medikuntzan espezializatua izan.

Aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetakoren bat ez egiaztatzeak proposamena ez onartzea ekarriko du berekin.

Halaber, pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute, hartarako emandako ahalordea erabiliz. Pertsona juridiko baten ordezkari kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatzeko gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Enpresariak, gainera, kontratu honen helburu den jarduera edo prestazioa burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, Idazkaritzan aztertu ahal izango da, 9:00etatik 13:00etara, astelehenetik larunbatera, lizitazio honen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertzen den hurrengo egunetik hasita proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

Proposamenak Bergarako Udaletxearen Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 9:00etatik 13:00era, hamabost egun naturaleko epean, iragarki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Lizitazioa hau kontratazio-organoko kontratatuzailearen profilean ere argitaratuko da, eta honako atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango da: www.bergara.net

Plegu hauek eta dokumentazio osagarria kontratazio-organoko kontratatuzailearen profilean honako atari informatikoan edo webgunean eskuratu ahal izango dira: www.bergara.net

Baldintza-agiriak eta horien dokumentazio osagarria eskatzen duten lizitatuzaileei bidaliko zaizkie, proposamenak hartzeko data iraungi aurreko sei egunetan, gutxienez, betiere eskaintzak aurkezteko epea iraungi baino gutxienez zortzi egun lehenago egindako eskariak badira.

SPKLaren 142.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, baldintza-agiriei eta dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeen barruan entregatzerik izan ez bada, edo eskaintzak egiteko aldeztatik lanen tokian bertan bisita egin behar bada edo baldintza-agiriari erantsitako

dokumentazioa "in situ" kontsultatu behar bada, eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, hautagai guztiek beharrezkoa duten informazio jaso dezaten ahalbidetzeko adina.

Ez dira onartuko epe horretatik kanpo aurkezten diren proposamenak, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu, ez baldin bada proposamena postetxean aurkeztu den egunean bertan, posta-egiaztagiria bidaltzen Bergarako Udalari faxez (943779163 zenbakira), Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Araudi Orokorraren 80.4 artikuluan ezarritako modu eta baldintzak betez.

Nolanahi ere, ez da proposamenik onartuko proposamenak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita hamar egun igaro ondoren.

Proposamenak isilpekoak izango dira, eta horiek aurkezterakoan enpresariak plegu honetan xedatutakoa oso-osorik eta baldintzarik gabe onartzen duela ulertuko da.

Lizitzaileek bi kartazal (A eta B) aurkeztu beharko dituzte itxita. Kartazal bakoitzean honako hau idatziko da: "BERGARAKO JESUITEN ELIZAN EDO ERREGE SEMINARIOKO ELIZAN INDUSKETA ARKEOLOGIKOA EGITEA KONTRATATZEKO LEHIAKETA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA". Kartazal bakoitzean enpresaren izena eta proposamen-izenpetzailearen izen-abizenak jarriko dira, noren izenean izenpetzen duen zehaztuz. Bi kartazalek ere izenpetuta egon beharko dute.

"A" kartazalaren azpititulua hauxe izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:"

a) Parte-hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldatetaren eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, eta identifikazio fiskaleko zenbakiaN, inskripzioa derrigorrezkoa baldin badu, aplikatu behar zaion merkataritzako legeriaren arabera. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribaturik egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak. Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europako Erkidegokoak, lanbide- edo merkataritza-erregistroko inskripzioaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, beren estatuko legeriak inskribatu beharra ezartzen baldin badie. Edo zinpeko aitortpena edo egiaztagiria aurkeztuta, Europako Erkidegoan aplikagarri diren xedapenei jarraituaz.

c) Zinpeko aitortpena, non lehiatzaileak aitortu beharko duen ez daukala Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak 49. artikuluan Administrazioarekin kontratatzeke ezartzen dituen debekuetatik bat ere. Aitorpen horretan berriaz adieraziko du kitaturik dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean dauden xedapenek ezarritakoak; edo, hala egiten ez badu, egiaztagiriak aurkeztuko ditu, betebeharrak horiek beterik dituela frogatzeko.

d) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan baxerik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

e) Lehiatzailearen ekonomi eta finantza-kaudimenaren eta gaitasun tekniko edo profesionalaren frogagiriak. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 64. eta 67. artikuluetan ezarritako bideetatik edozein erabili ahal izango da.

f) Hainbat enpresak lehiaketara jotzen badute aldi baterako enpresa-batasuna eratuz, taldekide bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena frogatu beharko ditu aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Adjudikazioa lortuz gero, AEB (Aldi baterako Enpresa Batasuna) formala eratzeko konpromisoa agertu beharko dute enpresa guztiek. Era berean, aldi baterako enpresa-batasuneko kide bakoitzak kontratuaren zein zati egingo lukeen adierazi beharko dute proposamenean, kide bakoitzaren kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko.

g) Atzerriko enpresak badira, Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adierazi beharko dute kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta lizitatzailerari egokitu lekiokkeen atzerriko foru jurisdikzionalari uko egiten diola.

h) Enpresa lizitatzailerak Erdi Aroari eta Aro Modernoari buruzko ikerketa zientifikoan, ikerketa arkeologikoaren eta historiko-dokumentalaren alorretan gutxienez 2 urteko esperientzia duela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, egin dituzten lanen erakunde hartzaileek egindako egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

i) Indusketaren zuzendariak Historia edo Arkeologiako lizentziatu titulua duela eta Erdi Aroari eta Aro Modernoari buruzko ikerketa historiko eta arkeologikoaren alorretan, gutxienez, bi urteko esperientzia duela egiaztatzen duten agiriak.

j) Lan-taldeko kideetako batek Antropologiako lizentziatu titulua daukala edo, Medikuntzako lizentziatura titulua izanik, lege eta auzitegi medikuntzan espezializatua dela egiaztatzen duen agiria.

k) Behin-behineko fidantza ezarri dela egiaztatzen duen agiria.

Goiko a), b) eta e) puntuetan adierazitako baldintzak ziurtatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, Estatuko Eskaintzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialeko ziurtagiriarekin, edo Europar Batasuneko sailkapen-ziurtagiri batekin, SPKLaren 73. artikulua xedatutakoaren arabera. Kasu honetan, ziurtapenarekin batera, adierazitako egoerak aldatu ez direla ziurtatzen duen lizitatzaileraren ardura-adierazpena ere gehitu beharko da.

“B” kartazalaren azpтитulua hau izango da: “DIRU-PROPOSAMENA ETA ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK, eta kartazal horren barruan ondorengo agiriak aurkeztu beharko dira:

a) Proposamen ekonomikoa, honako eredu honen arabera:

DIRU-PROPOSAMENA

Lehiatzailearen datuak:

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN,, Telefonoa

Ordezkararen datuak (ordezkaririk egonez gero):

Izen-abizenak
Helbidea
Posta kodea, NAN edo IFK,, Telefonoa

e-maila.....

Bergarako Jesuiten Elizan edo Errege Seminarioko Elizan indusketa arkeologikoa egitea kontratatzeko asmoz Bergarako Udalak dei egindako prozedura irekiaren berri izanik, hona hemen nire

ADIERAZPENA

1º) Hitz ematen dut kontratua honako prezio honetan burutuko dudala: €, Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) barne. Prezio horren %....., hau da, €, BEZari dagokio. Prezioaren barruan gai guztiak sartzen dira: zergak, gastuak eta zergen arloko edozein tasa edo ariel, bai eta kontratu-hartzailearen industria onura ere.

2º) Baldintza Teknikoen Plegua, Administrazio-baldintza partikularren Plegua eta kontratu hau arautu behar duten gainontzeko agiriak ezagutzen ditut. Horiek horrela, neure gain hartu eta ontzat hartzen ditut oso-osorik.

3º) Ordezkatzen dudan enpresak, ireki, instalatu eta jarduteko indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

....., 20....(e)koaren(a)

Sinadura

b) Aurrekontu desglosatua, baldintza teknikoen pleguko 2. puntuan adierazitako puntu guztiak zehatz-mehatz jasotzen dituen.

c) Plegu honen 16. klausulan adierazitako eskaintzen balorazio-irizpideen betetzea egiaztatuko duten proiektua eta dokumentuak.

19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA.

Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo laneguneko 12:30ean irekiko dira proposamenak.

Lehenengo eta behin, epe eta forma aldetik egoki jasotako dokumentazioa kalifikatuko du Mahaiak ("A" sobrea). Akats materialik antzemango balu, bost laneguneko epea eman ahal izango du lizitatuzaileak akatsak zuzen ditzan.

Aurkeztutako eskaintzak ("B" sobrea) jendaurrean irekiko dira "A" sobrearen dokumentazioa kalifikatu ondoren, beti ere aurreko idatzatian jasotako akatsak zuzentzeko epea eman ez bada. Akats zuzenketarako epe hori eman bada, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta seigarren lanegunean irekiko dira, 12:30ean.

Ondoren, eta beharrezko irizten dituen txosten teknikoak jaso ondoren, Kontratazio-Mahaiak, horrela badagokio, adjudikazio proposamena bidaliko dio Alkatetzari.

Udalak aukeran izango du kontratua abantaila gehien eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzea, derrigorrez eskaintza ekonomikoari bakarrik begiratu gabe, ala lehiaketa hutsik aitortzea.

20. ADJUDIKAZIOA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK.

Behin-behineko adjudikazioa gehienez bi hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontaktzen hasita. SPKL-aren 145.3 artikuluan aurreikusten denez, epe hori hamabost lanegunetan luzatuko da SPKL-aren 136.3 artikulua zehaztutako tramiteak jarraitu behar direnean, balio anormalak edo neurritz gainekoak dituzten eskaintzak antzematen diren kasuetan.

Eskaintza anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen denean lizitatzailari (edo lizitatzailari, hala dagokienean) entzugo zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko du.

Kasu honetan, eskaintzaileak emandako arrazoiak eta txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki proposamenik onuragarriena egiten duen lizitatzailari egingo dio behin-behineko adjudikazioa, betiere Administrazioaren lanak egiteko gaitasuna duela; bestela, anormaltzat edo neurritz gainekotzat jotzen ez den proposamenari egingo zaio behin-behineko adjudikazioa.

Behin-behineko esleipena kontratatzailearen profilean argitaratu eta hamabost lan-eguneko epean honakoak egin beharko ditu behin-behineko adjudikazio-hartzaileak:

- a) Egiaztagiria aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzeko, baldin eta ez baditu agiri horiek proposamenarekin batera aurkeztu, baita kontratua burutzeko beharrezkoak dituen bitartekoak eskuratzeko konpromisoa betetzen duela ziurtatzeko dokumentua ere, hala badagokio.
- b) Behin-betiko bermea ezarri.
- c) IFKren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiriaren kopia konpultsatua aurkeztea.
- d) Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Behin-behineko adjudikazioa behin betiko egin beharko da hamar laneguneko epean, goian aipatutako epea amaitzen den egunetik kontaktzen hasita, baldin eta adjudikazio-hartzaileak adierazitakoak egin baditu. Horiek egin ezean, behin-behineko adjudikazio-hartzaileari ez zaio behin betiko adjudikazioa egingo.

SPKLaren 139.2 artikulua araberan, kontratua burutzeari edo jardunbide honi uko egiten bazaio, adjudikazioak lizitatzailari eragindako gastuak konpentsatzeko Administrazioak zehaztuko ditu gastuok, lizitatzailari entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratua zeharo gauzatzeko Alkatetzak behin betiko adjudikazioa emango du eta adjudikazio-hartzaileari jakinaraziko zaio. Hau, jakinarazpenaren biharamunetik hamar laneguneko epean, honakoak bete beharko ditu:

- a) Justifikatu beharko du gutxienezko 300.000 euroko kapitalaren erantzukizun zibileko poliza kontratatu eta ordaindu duela; aseguru horrek erantzungo baitu beste pertsoneri eragin dakizkiekeen kalteengatik, hau da, adjudikazioaren xede den ustiapenak dirauen bitartean bere langile, enplegatu edo menpeko iraukor nahiz noizbehinkakoen egintzetatik edo bere makinaria eta tresneriarengatik edo egindako lanengatik etor daitezkeen kalteengatik.

- b) Lizitatzailleak Aldi Baterako Enpresa-Elkarte eginda aurkeztu badira, kontratua sinatu baino lehen, horren eraketa-eskritura aurkeztu beharko dute.
- c) Azkenik, administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Kontratu-hartzailearen erruagatik kontratua formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak bertan behera utzi ahal izango du kontratua, interesduna entzun eta gero, eta kalte-galerak ordainduko dira.

III.- IZAERA ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

21. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Plegu honetan oinarrituz egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta pleguan berariaz aurreikusi gabeko guztietarako hauek jarraitu beharko dira: Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko, urriaren 30eko, 30/2007 Legea; Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa); eta Administrazio Publikoek kontratatzeke orduan aplikagarri dituzten gainontzeko arauak, kasuan kasuko.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratu-hartzaileak SPKLaren Hogeita Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

23. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritik.

BERGARAKO JESUITEN EDO ERREGE SEMINARIOKO ELIZAN INDUSKETA ARKEOLOGIKOA EGITEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1 –INDUSKETA ARKEOLOGIKOAREN HELBURU ZIENTIFIKOAK

2007ko udaberrian eta udan zehar ikerketa geoteknikoa egin zen Bergarako Jesuiten (edo Errege Seminarioko) elizan. Esku-hartze harekin batera, orubean kontrol arkeologikoa ere egin zen (Balizko Arkeologia Gunea: Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordearen 1997ko irailaren 11ko eta 17ko Ebazpenak). Kontrol arkeologikoak agerian eta egiaztatuta utzi zuen leku hartan potentzial arkeologiko handia zegoela.

Baldintza teknikoek agiri honek xede duen indusketa arkeologikoa, beraz, funtsezko gai batzuei buruzko informazio baliotsua lortzeko erabili behar da, Bergararen historiaren ezagutzan sakontzeko helburuz. Gai horiek azken memoria edo txosten arkeologikoan jaso behar dira ezinbestean, eta honako hauek dira:

- 1.1 Orubea Ariznoako San Pedro parrokiatik gertu eta haren azpiko aldean dago (parrokia haren inguruan jaio zen Bergara) eta, beraz, hiria sortu zeneko (edo, agian, lehenagoko) arrastoak egoteko aukera handiak daude leku horretan.
- 1.2 Jesuiten (edo Errege Seminarioko) elizako indusketa arkeologikoak argibide ugari eta garrantzitsuak eman litzake hiriaren eta Bidekurutzetako errebalaren hasierako hedaturari buruz. Orobat, gaur egun oraindik argitzeke dagoen eztabaida ebazteko dokumentazio arkeologikoa eman lezake: hirian defentsa-itxitura, horma, hesia edo harresia egon ote zen eta, baiezkoan, nolako eboluzioa eta zabalkundea izan zuen.
- 1.3 Indusketa arkeologikoari esker, jesuiten komunitatearen antzinako elizaren (1598, oraingo elizaren aurrekoa) arrastorik dagoen ala ez egiaztatuko da.
- 1.4 Indusketa arkeologikoak, halaber, Jesuiten Ikastetxeko eliza berriaren (1628-1678, gaur egungoa) ezaugarriak eta erabilera ezagutzeko argibideak emango ditu, "jesuiten barroko" deritzonaren adierazgarri nabarmena baita.
- 1.5 Azkenik, indusketa arkeologikoak balio behar du Andrés de Madariaga jaunaren hilobiko zolarriak, hilarriak eta mausoleoak osatutako multzoaren ezaugarriak, eraikuntza-faseak, apaingarriak eta, hala badagokio, edukiak berreskuratzeke, baita elementu horiei guztiei buruzko dokumentazioa osatzeko ere.

2- EGIN BEHARREKO LAN, EKINTZA EDO ZEREGIN ZEHATZAK :

Aurretik aipatutako helburu zientifikoak kontuan izanik, indusketa arkeologikoak, gutxienez, ondoren adieraziko diren ekintzak garatuko ditu, eta ekintza horiek proiektuan eta horri erantsitako aurrekontuan jasota ageri behar dira: alde batetik, indusketa arkeologikoa bera eta aurreko eta ondorengo gainerako zeregin zientifikoak, eta bestetik, indusketa arkeologikoaren prozesua eta haren bidez lortuko diren emaitza zientifikoak ezagutarazteko programa.

2.1- Indusketa arkeologikoa eta aurreko eta ondorengo zeregin zientifikoak

Errege Seminarioko elizaren orubearen azalera 472 m² inguru da. Dokumentatu denez, orubean lodiera handiko geruza betegarria dago, 1,40 eta 3,40 metro bitartekoa. Gaur egun, leundutako kareharrizko lauzez osatutako zolarria du, hormigoizko plakaren gainean. Indusketa egiteko erabili beharreko estrategiak eskuzko prozedurak eta prozedura mekanikoak konbinatu behar ditu. Indusketa mekanikoa egin behar dute langile kualifikatuek eta erabili beharreko makinekin (pikotx pneumatikoarekin batez ere) esperientzia handikoek, besteak beste, hainbat koloretako marmolezko plakez osatutako aurreko zolarri bikaina zaindu behar delako. Lurrak erazteko eta baimendutako hondakindegietara garraiatzeko lanen aurrekontua ere egin behar da. Eskuzko indusketa ere langile kualifikatuek egin behar dute, hau da, historian eta/edo arkeologian lizentziatuek edo/eta doktoreek osatutako taldeak egin behar du, eta talde horrek Erdi Aroko eta Aro Modernoko ikerketa historikoan eta arkeologikoan esperientzia izan behar du. Orobat, lantaldeko kideetako batek Antropologia lizentziatu titulua eduki beharko du edo Medikuntza lizentziatu titulua eta lege eta auzitegi medikuntzan espezializatua izan. Ildo horretan, indusketa arkeologikoaren zuzendariaren curriculum profesionala eta, gutxienez, lantaldeko kideen % 50en curriculumen laburpena aurkeztu behar dira. Indusketaren estrategiak barne hartuko dituen ekintzak bi fasetan garatuko dira eta gutxienez honako ekintza hauek garatuko ditu:

2.1.1. Indusketa arkeologikoaren 1. FASEA

1.a. Elizako antzinako zolarri osoa desestali eta dokumentatzea. Aipatutako zolarri bikaina marmol zuriko, beltzeko eta arrosako plakez osatua da, eta kareharri grisezko harlanduz orlatua.

1.b. Jesuiten komunitateko XVII. eta XVIII. mendeetako hilobiak desestali, induskatu eta dokumentatzea. Zehazki, 15 metro koadroko bi eremu desestali eta induskatu behar dira, zaindu beharreko zoladura artistikoaren alde banatan kokatuak.

1.c. Egungo elizaren oinetan dagoen horma osoa oinplanoan desestali eta haren jatorria, izaera eta eboluzioa dokumentatzea.

1.d. Egungo eliza eraiki aurretik eta ondoren orubeari emandako bestelako erabilerari buruzko dokumentazioa (fundazioaren aurreko arrastoak, antzinako etxeen orubeak, jesuiten antzinako eliza, elizako gune zaharrak, etab.).

1.e. Seminarioko eraikinari buruzko bibliografia eta dokumentazio historikoaren hustuketa sakona. Dokumentazio historikoari dagokionez, funtsezkoa izango da Bergarako Udal Artxiboan egin beharreko ikerketa-lana, baina ikertzeko zeregina ezin da horretara mugatu. Horrez gain, eta gutxienez, Zavala Etxeko Artxiboa, Gipuzkoako Artxibo Nagusia (batez ere korrejimenduko fondo judiziala), Oñatiko Protokoloen Artxibo Historikoa eta Valladolideko Errege Kantzilertza Artxiboa ere kontsultatu behar dira.

1.f. Indusketaren 1. faseari dagokion material arkeologiko higigarria kudeatu eta prozesatzea (garbitzea, siglatzea eta inbentariatzea).

1.g. Andres de Madariaga jaunaren eta bere ondorengoen mausoleoa: 1) Andres de Madariaga jaunaren omenezko hilarria, 1868an kareharri beltzez eta marmol zuriz egina, osorik eraztea; 2) Andres de Madariaga jaunaren mausoleoaren estalki zizelkatua osatzen duen hareharrizko bloke monolitiko osoa, 1678koa, desestaltzea; 3) 1678ko estalki zizelkatuaren inguruko alboak induskatu, azpian egon litekeen sarkofagoa aurkitzeko; 4) harrizko artelanen tratamenduan eta manipulazioan esperientzia frogatua duen zaharbertzaile baten txostena, 1678ko estalki zizelkatua

osorik eta kaltetu gabe altxatzea bideragarria den ala ez argitzeko, eta jarduera horretarako proposamena.

1.h. Indusketaren 1. faseari dagozkion lan arkeologiko eta dokumentalen behin-behineko emaitzak jasotzen dituen aurre-txosten arkeologikoa egitea, Aurre-txosten arkeologikoaren bi kopia paperean eta beste kopia bat euskarri informatikoan (CD-ROM) entregatuko dira. Paperean egindako kopiak DIN A-4 formatuan eta ondo azaleztatuta entregatuko dira, eta euskarri informatikoan egindakoa Word eta PDF formatuetan. Aurre-txosten arkeologikoa ustiatzeko eskubideak, hau da, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta aldatzeko eskubideak, Bergarako Udalarenak izango dira denbora mugagabean eta mundu osoan. Era berean, esleipenari dagokion zenbatekoa ordainduta, eskubide horiek ordainduz emango dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 46. artikulua jasotako oroharreko prezioa espresuki barne hartuta.

1.i. Indusketaren 1. faseari dagokion memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologikoa idaztea. Txosten arkeologiko horrek, gutxienez, honako bi elementu hauek jaso behar ditu: alde batetik, indusketa hasi aurreko aztarnategiaren egoeraren deskribapena, eta bestetik, egindako lan guztien deskribapen zehatza eta ateratako konklusio zientifikoak, baldintza teknikoan agiri honetako 1. puntuan aipatutako gai historikoak espresuki azalduz. Memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologikoan, testuekin batera, argazkiak, marrazkiak eta, hala dagokionean, planoak erantsiko dira. Paperean egindako hiru kopia eta euskarri informatikoan (CD-ROM) beste hiru entregatuko dira. Paperean egindako kopiak DIN A-4 formatuan eta ondo azaleztatuta entregatuko dira, eta euskarri informatikoan egindakoak Word eta PDF formatuetan. Horrez gain, indusketa arkeologikoaren 1. fasean zehar ateratako argazki guztiak, baita landutako gainerako material grafikoa ere (marrazkiak eta, hala dagokionean, planoak) beste CD-ROM edo DVD disko batean entregatu behar dira, irudi bakoitzaren edukiaren azalpen zehatza eginda. Argazkiak JPEG edo TIFF formatuan entregatuko dira. Indusketaren 1. faseari dagokion memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologikoa, bai eta hori egiteko erabilitako gainerako materiala ere (testuak, argazkiak, marrazkiak, planoak, etab.) ustiatzeko eskubideak, hau da, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta aldatzeko eskubideak, Bergarako Udalarenak izango dira denbora mugagabean eta mundu osoan. Era berean, esleipenari dagokion zenbatekoa ordainduta, eskubide horiek ordainduz emango dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 46. artikulua jasotako oroharreko prezioa espresuki barne hartuta.

2.1.2. Indusketa arkeologikoaren 2. FASEA

Mausoleoaren estalki zizelkatua altxatzearen bideragarritasunari buruzko txostenaren arabera, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak alde aurretik baimena emanda, indusketa arkeologikoaren 2. faseari ekin ala ez erabakiko du. Fase horrek ondorengo urrats hauek barne hartzen ditu:

2.a. Andres de Madariaga jaunaren mausoleoaren estalkia altxatzea, osorik eta kaltetu gabe.

2.b. Mausoleoa induskatzea eta arrasto antropologikoak eta ostilamendu edo ajuarrak erauzteak.

2.c. Arrasto antropologikoak eta gai metaliko, ehun-gai eta, egongo balira, bestelakoak tratatu eta zaintzea.

2.d. Ikerketa antropologikoa.

2.e. Indusketaren 2. faseari dagokion material arkeologikoa kudeatu eta prozesatzea (garbitzea, siglatzea eta inbentariatzea).

2.f. Indusketaren 2. faseari dagozkion lan arkeologiko eta dokumentalen behin-behineko emaitzak jasotzen dituen aurre-txosten arkeologiko eta antropologikoa egitea, Aurre-txosten arkeologiko eta antropologikoaren bi kopia paperean eta beste kopia bat euskarri informatikoan (CD-ROM) entregatuko dira. Paperean egindako kopiak DIN A-4 formatuan eta ondo azaleztatuta entregatuko dira, eta euskarri informatikoan egindakoa Word eta PDF formatuetan. Aurre-txosten arkeologiko eta antropologikoa ustiatzeko eskubideak, hau da, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta aldatzeko eskubideak, Bergarako Udalarenak izango dira denbora mugagabeen eta mundu osoan. Era berean, esleipenari dagokion zenbatekoa ordainduta, eskubide horiek ordaindutzat emango dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 46. artikulua jasotako oroharreko prezioa espresuki barne hartuta.

2.g. Indusketaren 2. faseari dagokion memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologiko eta antropologikoa idaztea. Memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologiko eta antropologikoan, testuekin batera, argazkiak, marrazkiak eta, hala dagokionean, planoak erantsiko dira. Paperean egindako hiru kopia eta euskarri informatikoan (CD-ROM) beste hiru entregatuko dira. Paperean egindako kopiak DIN A-4 formatuan eta ondo azaleztatuta entregatuko dira, eta euskarri informatikoan egindakoak Word eta PDF formatuetan. Horrez gain, indusketa arkeologikoaren 2. fasean zehar ateratako argazki guztiak, baita landutako gainerako material grafikoa ere (marrazkiak eta, hala dagokionean, planoak) beste CD-ROM edo DVD disko batean entregatu behar dira, irudi bakoitzaren edukiaren azalpen zehatza eginda. Argazkiak JPEG edo TIFF formatuan entregatuko dira. Indusketaren 2. faseari dagokion memoria edo azken eta behin betiko txosten arkeologiko eta antropologikoa, bai eta hori egiteko erabilitako gainerako materiala ere (testuak, argazkiak, marrazkiak, planoak, etab.) ustiatzeko eskubideak, hau da, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta aldatzeko eskubideak, Bergarako Udalarenak izango dira denbora mugagabeen eta mundu osoan. Era berean, esleipenari dagokion zenbatekoa ordainduta, eskubide horiek ordaindutzat emango dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 46. artikulua jasotako oroharreko prezioa espresuki barne hartuta.

2.2 Ezagutarazteko programa. Indusketa arkeologikoaren prozesua eta horren bidez ateratako emaitza zientifikoak ezagutarazteko programa da eta, gutxienez, bisita gidatuak egiteko programa –bisita orokorrak eta bisita didaktikoak– eta bideo-erreportaje bat barne hartuko ditu.

2.2.1. Bisita gidatuak egiteko programa. Indusketa arkeologikoaren enpresa esleipendunak edo talde arduradunak bisita gidatuak egiteko programa diseinatuko du. Programaren helburua izango da indusketa arkeologikoko lanak, aztarnategiaren testuinguru historiko eta artistikoa eta ateratako emaitza zientifikoak ezagutaraztea. Helburu horrekin, aipatutako bisita gidatuen programa egiteko ibilbidea (irisgarritasunaren eta segurtasunaren alorretako derrigorrezko neurriak betetzen dituen) antolatuko du (eta, beraz, aurrekontua egingo du). Bisita gidatuak egiteko arduradunak langile kualifikatuak izango dira eta aztarnategi arkeologikoak eta ikerketa historiko eta arkeologikoen prozesuak erakusteko esperientzia handia izan behar dute. Indusketa arkeologikoaren ardura duen enpresak edo taldeak antolatutako bisita gidatuak eta erabiliko duen

material informatibo lagungarria (foiletoak eta/edo panelak eta/edo kartelak eta/edo eskuorri didaktikoak) euskaraz eta gaztelaniaz egon behar dira, bi hizkuntzetatik lehenari lehentasuna emanda. Enpresa esleipendunak publiko orokorrarentzako bisita gidatuen programa diseinatu eta gauzatuko du. Programa horrek, gutxienez, asteburuetan egiteko 10 bisita gidatu barne hartuko ditu. Era berean, Bergarako ikastetxeetako DBHko lehen zikloan diharduten ikasleentzako (12-14 urte) bisita gidatuen programa diseinatu eta gauzatuko du. Bigarren programa horrek, gutxienez, 8 bisita gidatu barne hartuko ditu, ikasturtean eta eskola-orduetan egin beharrekoak. Bisita gidatuak gauzatzea, haien publizitatea, taldeak eta txandak antolatzea eta abarrekoak enpresa esleipendunaren esku geratuko dira.

- 2.2.2. Enpresak 45 minutu inguruko bideo-erreportaje bat ekoitziko du, bi bertsiotan (euskaraz eta gaztelaniaz), indusketa arkeologikoaren prozesu guztiari buruz (indusketa arkeologikoaren 1 faseari eta 2. faseari buruz, azken hori azkenean gauzatzen bada behintzat). Ez da onartuko lanak egiten diren bitartean grabatzeko etxeko tresnak erabiltzea. Bideo txukun, koherente eta profesionala izan behar da. Bideo-erreportajearen masterra eta 50 kopia entregatuko dira, DVD formatuan, haietatik 25 kopia euskaraz eta beste 25 gaztelaniaz. Bideo-erreportajea eta hori egiteko erabilitako material guztia (audioa eta bideoa) ustiatzeko eskubideak, hau da, erreproduzitzeko, banatzeko, jendaurrean komunikatzeko eta aldatzeko eskubideak, Bergarako Udalarenak izango dira denbora mugagabea eta mundu osoan. Era berean, esleipenari dagokion zenbatekoa ordainduta, eskubide horiek ordaindutzat emango dira, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuaren 46. artikulua jasotako oroharreko prezioa espresuki barne hartuta.

3- ZEHAZTUTAKO OBRAK ETA LANAK EGITEKO EPEAK:

3.1. Kontratua sinatzen den egunetik hasita, gehienez 3 hilabeteko epea egongo da baldintza teknikoan agiri honen 2.1.1 atalean (indusketa arkeologikoaren 1. FASEA) jasotako lan eta zereginak burutzeko, 1.i puntuan jasotakoak (indusketa arkeologikoaren 1. faseari dagokion memoria edo behin betiko txosten arkeologikoa) izan ezik, horretarako 6 hilabeteko epea egongo baita.

3.2. Udalak indusketa arkeologikoaren 2. fasea egikaritzeko komunikazioa egiten den egunetik hasita, hilabete bateko epea egongo da baldintza teknikoan agiri honen 2.1.2 atalean (indusketa arkeologikoaren 2. FASEA) jasotako lan eta zereginak burutzeko, 2.g puntuan jasotakoak (indusketa arkeologikoaren 2. faseari dagokion memoria edo behin betiko txosten arkeologikoa eta antropologikoa) izan ezik, horretarako 3 hilabeteko epea egongo baita.

3.3. Kontratua sinatzen den egunetik hasita, gehienez 5 hilabeteko epea egongo da baldintza teknikoan agiri honen 2.2.2 atalean jasotako lan eta zereginak burutzeko eta bideo-erreportajea entregatzeko. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldeztu aurretik baimena emanda, indusketa arkeologikoaren 2. faseari ekitea erabakiz gero, gehienez 3 hilabeteko epea izango da, Udalak erabaki horren berri ematen duen egunetik hasita.

3.4. Ezagutzera emateko eta bisita gidatuak egiteko programa (baldintza teknikoan agiri honen 2.2.1 atala) indusketa arkeologikoaren 1. fasean zehar gauzatuko da.